

Marijane, Baigorri eta Urepele artean sortua da, Larrañe eta Santa Garazirekin batera Iparraldeko herririk menditsuena den Bankan, 1926ko irailaren 7an.

Ez zitekeen behin ere herririk izanen hor, burdina eta kobrea aurkiturik lurpean ez balute egun batez burdin-ola bat eraiki: XVIII. mende-hastapenetik XIX. mendearen hondarra arte 200 urtez iraun zuen, artetan gelditurik. Ondorioz langileak behar ziren; ala lurpean lanean aritzeko, ala olako labegaraia berotzeko behar zen ikatza egiteko oihanean. Orotara 400 bat langile izan dira.

Horra nola sortu zen Banka; haur eta zahar, laborari eta beste, denak zenbatuz, doidoietarik heltzen da orain lehenagoko kopuru horretara herri osoa.

Burdin-ola ikus daiteke oraino bide bazterrean. Eta elizaren inguruan dauden hilerrietan, delako olan urtua izan den hilobi bat, guztiz bitxia eta burdinezkoa.

Hain zuzen, eliza horren itzalean sortua da gure idazlea, herriko karrikan. Argi-indarra Errobiko urari esker egiten duen lantegi bat baita herrian, aita, iholdiarra sortzez, hor ari zitzaion lanean. Jakes zuen izena, baina denek Felix esaten zioten. Izen bikoitz horregaitik arazoak izan zituen soldadu alemanekin Frantzia guzia okupatu zutelarik.

1



Marijane Minaberry, Bankako idazlea.



Bankara etorri eta egin zuen Josephine Etxart Urepeleko andrearen ezagutza. Lau alaba izan zituzten, Marijane hirugarrena delarik.



Banka herria

Argietxe horretaz oroitzapen berezi bat dauka gogoan Marijanek. Ur-nasa urtean behin husten zen garbitzeko. Hustu eta zernahi arrain gelditzen zen lohiaren artean. Baina urtzaina etortzen zen, arrain horiek nehork ez zituela hartzen segurtatzera. Izan ere, botatzekoak ziren.

Zinezko neska modernoa, bere haur-denboran jadanik pilotan aritzen zen ahizpekin, etxe ondoan baitzuten pilota-plaza: apez-etxeko murruren kontra botatzen zen pilota. Garai haietan neskak ez ziren pilotan aritzen. Jaun erretorak ez zituen sobera begi onez ikusten marimutiko horiek. Bizkitartean, ez zituen behin ere erasiatu.

Egun batez Bankara etorri baitzen Larrart misionesta, jaun erretoraren ordezkatzeko zenbait hilabetez, nahi izan zituen bi ahizpak txapelketan ariarazi: apez moderno bat zitekeen hau ere.

Bankako eskolan hasi zituen ikasketak. Bankako eskola “batean” erran beharko nukeen, zeren eta gaur egun klase bakar bat —16 haur, besterik ez— baizik ez baldin bada herri horretan, garai haietan baziren hiru klase plazan, bakoitza hogeita hamar/berrogei haurrekin, eta beste bat Haira auzoaldean, herritik franko urrun. Hirugarren eskola bat idekitzea aipatua izan zen, han, mendian, Oihansoroko auzoan: hiru familien artean hogeita hamar haurrez goiti bazen eta.



Burdin-olak XVIII. eta XIX. mendeetan.

Espila auzoaldeko haurrek ez zuten eskola-etxerik. Egun guzietz bederatzik kilometro egin behar zuten goizean plazakora etortzeko eta beste hainbeste arratsaldean etxera itzultzeko. Baserrietarik heltzen ziren

hurrek plazako etxe batzuetan jaten zuten eguerdietan, ez baitzen kantinarik. Minaberry familian bizpahiru gehiago ziren mahaian bazkaltzeko tenorean.

Urruneko haur horiek ez zuten sekulan berantik ez eskolan, ez elizan, bi orenen bidea egin behar bazuten ere, oinez eta lohian. Minaberry ahizpak, aldiz, ezkilak jotzen

baitzuen hamar, eta gero bost minutu meza aitzin, bost minutuko ezkilaren zain egoten ziren etxetik jalgitzeko.



Labegaraia gaur ikusten den moduan.



Diploma eskuratu eta, hamabi urtetan joan zen Donapaleuko eskolara. Oinez egin behar zen Baigorri arte,

Burdin-oletako inginatoreak bere zazpi urteko semeari burdinean urtu hilobia.

trasteak eskuan zortzi kilometro. Hor autokarra hartzen zen Donapaleura. Oporretara itzultzen zirelarik, Hazparneko ikastetxean ziren mutikoak neskekin elkartzen ziren Baigorri eta zortzi kilometroak bertsoka egiten zituzten.

Breveta agiria Donapaleun lortu eta Angelura joan zen batxiler-agiria eskuratzera. Oraingo honetan bidea konplikatuagoa zen: oinez, beraz, Baigorri, trena Arrosara, Arrosan hartu Donibanetik Baionara joaten zen trena eta Baionan berriro Angelura arte. Gauza bitxia, biziaren parterik handiena Uztaritzen eman behar eta ez zen behin ere Uztaritzeko ikastetxean ibili, trena hor pasatzen zelarik Baionara joateko.



Bankako argi-indar lantegiako ur hodia.

Batxiler-agiria eskuratzeko etsaminak ez zituen behin ere gainditu, ama eriturik etxera itzuli baitzen urtea bukatu aitzin.

1948ko urriaren lehenean hasi zen Bankan herriko etxeko idazkari-lana egiten. Ez zuen egun guzia bulegoan ematen. Noizean behinka baizik ez zen norbait etortzen: agirien bila gehienetan —sortze eta beste—. Horiek etxean egiten zituen, bankarrak hara etortzen



zitzaizkiolarik. Hamar urtez egon zen bere herrian herriko etxeko idazkari.

Pena handiarekin utzi behar izan zuen bere Banka maitea, aita-amek etxe bat eraiki baitzuten Uztaritzen, Bankakoa ez berena izanez. Familia guzia “jautsi” zen Baxenabarretik Lapurdira 1954an —menditarrek “jaustea” esaten dute beti Baionara edo Parisera, edo berdin Alpeetara joaten direlarik.



Lau ahizpak amarekin eta aita, Jakes Minaberry.



Lau ahizpak.



Eskolako lagunekin.



Bere etxea Bankan.

Saint Louis de Gonzague elizako ikastetxean sartu zen irakasle 1954. urtean. Ikastetxe hau Baionan dago katedraletik bi urratsetan. Haurrak ama-eskolatik hartzen zituzten batxilerrera arte. Marijaneri zazpigarren urratseko eskola egokitu zitzaion —10-11 urteko haurrak—. Oso gustatzen zitzaion eskolak ematea.

Nahiz errient izan, ez zuen berebilik: gauza arraroa zen oraino garai haietan. Autokarrez etortzen zen Uztaritzetik Baionara. Azken urtean erosi zuen bere lehen autoa. Bigarren eskuko bat, ez bazen hiru edo laugarrenekoa.



Ikasle lagunekin.

6

Garai haietako ezker-abertzale handi batek Eppherre kalonjeari eskatu zion norbait bilatzea bere haurrei etxean euskara irakasteko. Kalonjeak Marijaneri egin zion eskaintza; honek onartu eta dimisioa eskatu zuen ikastetxean. Delako abertzaleak batere ez zuen hartu eta Eppherrek *Basque Eclair* egunkarian sarrarazi zuen lanik ez zuelako.



Hauxe zen Bankako Herriko etxea Marijanek bertan lanean ari zenean.

Marijane Minaberry Euskal Herri osoak ezagutzen du azken aldi honetan *Marijane kanta zan* diskoari esker. Marijanek haurrentzat idatzi hogeita hiru olerki kantutan eman ditu horretan *Oskorri-k*.

Adiskide bat galdu zuen batez sortu zitzaion olerkiak idazteko gogo. Idazle guziei egiten zaien galdera egin diogu: noiz ari zara idazten? nola heltzen zaizu inspirazioa?

“Oso bitxia da. Batzutan gauerditan ezpazara lokartua, zerbeit heldu zaizu gogora eta orduan, argia pizturik behar da berehala idatzi. Bestenaz, biharamuneko ahanzten zaizu.”

Badu urteak olerki horiek idatziak zituela, eta beti idazten segitzen du. Idazle anitzek kantariak bilatzen dituzte beren olerkia kantu bilaka diezaioten, kantu izanez jendearen aho-mihitan sartzen baita. Marijanek ez du horrelakorik egin behar izan, kantariak zaizkio etorri olerki bila.

Disko horrek berekin daukan liburutxoari eker, bizkaitar ala zuberotarrek errez ezagut ditzakete arrotzak zaizkien hitzak, espainerazko eta frantsesezko itzulpenei esker.



Nathan argitaletxearen diapositiba-metodoari
doazkien ariketak.



8

Beste hiru diskoena ere baluke zeren eta ehun bat olerki baditu idatziak bere bizian, batzuk behin ere nehon ez agertuak, etxeko armairu-zoko zenbaitetan lo daudenak, besteak eskuin eta ezker publikatuak izanak: duela hogeita hamar bat urte *Ikus, entzun, ikas* haurrentzat egin aldizkarian edo *Xoria kantari* 1965an Ikas Elkarteak haurrentzat plazaratu liburutxoan.

Xoria kantari liburuan, hain zuzen, aita Lertxundi Belokeko beneditarrak egin aireekin agertzen dira hamaika

olerki 1988an, Uhaitza Xiberoko Kultur Elkarteak atera baitzuen disko bat dozena bat haur-kanturekin, nor ohartu zen orduan *Xerri kuttin* eta *Besta on zuri ama* Marijaneren olerkiak zirela? Bordeleko Euskaldunek atera *O Ama* disko txikian ere badira bere kantuak.

Olerki horietatik kantatu dituzte oraino *Arrantzaleak*, *Adixkideak* edo *Nekez ari* taldeek, baita Mixel Etxeverryk ere. Ikus daitekeen bezala Marijaneren olerkiek daukaten arrakasta ez da oraikoa.



1965ean Manex Pagolak kanturik egin diskoa.

Oskorri-k hautatu olerki horietan badira frantsesezkoetarik ateratakoak: ez itzulpen soilak, baina Otsobik La Fontaine-rekin egin zuen bezala, euskaldun gogo batean hausnartu eta berriz sortuak euskal moldean. Hala nola aurkituko dituzuen, eskola frantsesetako haur guziek ikasten dituzten *Maman les P'tits bateaux* kantua (*Ur gainean*) edota *Sur le pont d' Avignon* (*Mitxelengo zubittoan*). Aita Lertxundiri batere ez zitzaion gustatzen euskal hitzak aire frantsesetan emanak izatea eta aire berriak egin zizkien delako kantu horiei. *Oskorri*-ren diskoan badira, halaber, Natxo de Felipe eta Benito Lertxundiren aireak.

Manex Pagolak kantaturik atera zen beste disko ttiki bat —45 itzulitako haietarik— gorago aipatu liburutxo horretako lau kanturekin. Euskal Herrian haurrentzat egin diren lehen diskoetarik, ez bada lehena. Bere kontu atera zuen disko hau, Henri Laulé marrazkilariaren azalarekin. Zenbat saldu ziren galdetzen badiozu Minaberry andereari erantzunen dizu batere ez dela oroitzen: datuekin hasarretua da eta bereziki antzineko urte horiek noizkoak diren nahi duzularik jakin: sekulan ez daki. Ipuineko Mari Gorrik bezala oroimena galdua du.

Aldiz horra, gauza bat azongri oititzen da: ez zen orai bezala disko-banatzailerik, alabaina disko guti saltzen zen eta euskaraz bakar batzuk baizik ez ziren. Berak edo bere lagunak behar zuten joan herriz herri disko zenbait saltegi batean uzteko. Edo postaz igortzen ziren. Zenbaiti ahanzten zitzairen saldu diskoen dirua ematea, beste batzuek xoko batean uzten zituzten batere saldu gabe.

Salduak ez zirenak biltzen baitzituzten, hona zer gertatu zitzairen Senperen. Gelditu zirenak gibelera hartu zituzten beraz. Etxerakoan zertaz ohartu ziren? *Xoria Kantari*-ren azalaren barnean, beste disko bat sartua zutela, euskarazkoa harturik. Uste izan behar da euskarazko hori norbaiti gustatu zitzaiola.

Odolean zukeen Marijanek saltzaile txarra izate hori. Bere aitona txokolate egiten zuen lholdin joan den mende-hondarrean. Baina bezeroek gero pagatuko zutela hitzeman eta joaten ziren... eta pagatzera etortzea ahanzten. Txokolatea egitea utzirik laborantzari lotu behar izan zitzaion aitona Minaberry.

Bere iloba idazten hasi zelarik, Iparraldean ez zen oraino ez ikastola, ez eskola elebidunik. Halere, euskara zerbait egin nahi zuten irakasleek




10

eskuetan zeuzkaten material bakarrak ziren Marijanek eginak: *Ikus, Entzun, Ikas* —gero ikusiko duguna— eta bere olerki eta ipuinak. “Beharrik hor genituen” erran digu garai haietako errient batek.

Berrogeita hamar bat olerki polikopiatuak dauzkan bilduma bat

ere ikusi diogu irakasleentzat: *Haurrak ikas zazue*. Azalean jarri zuen edergailu Euskal Herriko turismoarentzat egin publizitate-marrazki bat.

Ikastolak sortu zirelarik *Porroxxak* liburutxoa eskaini zien hamabost olerki laburrekin.



Aitonaren txokolatea biltzeko papera.

1957an *Basque Eclair* egunkarian sartu zen. Gouyon apezpikuak nahi izan zuen elizaren egunkari bat sarrarazi Euskal Herrian eta horretarako, jadanik Paben zeukan *Eclair des Pyrénées* egunkariaren edizio berri bat sortu zuten Baionan.

Euskal Herri guziaren ezagutza egin zuen Marijanek. Herrietako berriketariak baziren alde batetik, apez guziak ezagutzen zituen, bestetik. Laneko giroa ere oso ona zen. Berekin izan ditu, Eppherre kalonje zuberotarra, Joseph Camino gaurko bikario nagusia eta *Panpin* haur-aldizkariaren sortzailea, Gexan Lantziri eta gero *Sud Ouest* egunkarira joan behar izan zuen Jean Battitt Dirazar, denak euskal idazle izanen direnak. Baita zuberotar bat ere; Jean Pierre Aren —hau oraino *Sud Ouest*-en ari da— eta Kopentipi eta Decha apezak.

Egunkari batean, egun oroz euskararen irakaskuntza bat zabaldu duten lehenak izan daitezke: Oñatibiaren metodoa agertu zen osoan, egunez egun, *Basque Eclair* egunkari horretan. Astean behin artikulu bat bazen, bestalde, euskaraz.

Marijaneren lana, idazkariarena zen baina artikuluak ere idazten zituen. Eta ikusi dugun bezala, haur-denboran pilotaria izana baitzen, pilota segitzen zuena eritu zen batez, Marijaneren gain eman zuten artikulu horien egitea. Nehor ez zen ohartu emazte batek eginak zirela. Ez zuten trinketeko partida bat ere huts egiten. Ez zen gizonen artean galdu emazte bakarra so egileetan, baziren beste emazte batzuk ere eta horietan adineko bakar batzuk.

Sud Ouest-ek erosi zuen *Basque Eclair* langile eta guzi. Bizpahiru mila ale baizik ez ziren saltzen. Hein bereko beste lau egunkari baziren Baiona aldean eta Pabeko egunkariaren Euskal Herriko edizioa gelditzea erabaki zuten. 1975ean *Sud Ouest*-era pasatu zen Marijane. Azken hamabost urteak egunkari horretan emango ditu, idazkari-lanetan, Uztaritzeko berriak ere ematen zituela.

1990az geroz erretretan da, aizina gehiagorekin, baina ez du lehen bezainbat idazten, denbora eskasez: adinarekin lanean gutiago antzintzen ote den gogoeta egiten du.

Ez ditzakegu kazetariak idatzi lerro hauek utzi erran gabe irratilari ere izan



dela. Iparraldeko lehen irratilarietarik euskaraz. 1960an Parisko Irrati Nazionalak irradi bat antolatu zuen hemen udatiarrentzat bi hilabetez: *Radio Côte Basque*. Zuzendariak nahi izan zion euskarari tokitxo bat eman: ordu bat igandeetan, meza euskaraz, bestalde, oren erdi bat ostegunetan eta bost minutu goiz guzietz. Pantxo Etxezaharreta eta Piarres Lartzabalen inguruan bildu zen talde bat emankizunak prestatzeko eta egiteko.

Hor zen, lehen lerroan, gure Marijane. Bertsolarien saila hartu zuen bere gain orduan atera zen Txomin Ezponda gaztea entzunarazten zuela, besteak beste. Henriette Aire Xalbadorren alaba ere etorri zen behin bere bertsoen kantatzera. Haurren xokoa eta entzuleen disko-eskaintza ere bere gain ziren. Izugarritzko arrakasta izan zuten udako emankizun horiek eta bereziki disko-eskaintzek.

Geroztik ere entzun da Marijanen boza bai *Gure Irratian* eta Elizak Ustaritzen daukan *Lapurdi Irratian*. Bietan egin du egun oroz eguneko sailuaren aipamena.

Herria euskarazko astekarian segurtatzen du, bestalde, Uztaritze herriko berrien ematea.



Eppherre bere lankidea
Gure Herria-ren zuzendaria
izanez, hilabetekari horrentzat
ere ari izan zen lanean, ipuin
zenbait argitaratzen zituela
bai eta inprimatzeko zuzenketak
egiten. Louis Dassance Uztariztar
euskaltzaina aldizkari berean zen.

Aitarengandik ote dauka ipuinlari
dohaia Minaberry andreak?
Lagunartean zelarik, ostatueta edo,
irri-ixtorio kontalari famatua zen.

Gure Herria-ren babezpean
plazaratu zuen bere lehen ipuin-
-bilduma: *Mari Gorri*. André Ospitalen
marrazkiek apaindurik.




Lehen ipuin-bilduma.

Hamar ipuin dira hogeita hamar bat orrialde egiten dituen liburutxo horretan, denak haurrentzat eginak. Animaliak dira ipuin horietarik gehienen heroiak: Bazko-egunean oroimena galdurik oso kezkatua zegoen Mari Gorri edo Kattalin Gorri; zahartua eta jautzia ibiltzeko ez dela on ohartzearekin, zakur ihiztorrei ihes egiteko jukutria bat asmatu zuen lapina; hontzak kontseilaturik adiskide bila joan eta, otso, hartz, eta erbi utzirik, gizonaren laguna bilakatu zen txakurra; oilo beltzak eta oilo horiak hala erranik, etxetik urrun, bere ustez libre, joan zen katakumea; libertate gosez hau ere, mendira joan eta otsoarekin buruz buru egin zuen Xuriko ahuña; merkatuan gatza erosirik etxeratzerakoan basurdea lehenik eta gero lehoia ikusi zituen andere ahuntza.

Abereekin jende zenbait ere ikusten dugu, haur eta zahar: Joanes zirtzil, sorginak igorriarik, ezagutzen ez duen anaiaren bila doana, bidean ikusten dituela urtxintxa, errepiittita, katua eta azkenean bere anaia ...xerria; bere lapin maitea amatxik ez ote dion hilen ikaran dagoen Peio; marbre xuriz egin gaztelu zoragarrian bizi den Xuria printzesa...

Beste ipuin-bilduma bat atera zuen 1963an sortu berria zen Goiztiri



Ipuin-bilduma bat.

Baionako argitaletxean: *Itchulingo anderea*. Sei ipuin biltzen dira honetan: *Itchulingo anderea*, *Martxoko elurra*, *Oreinaren emaitza*, *Eñaut eta sagutxo*, *Altxalilien erregea* eta *Erregina gaztea*.

Haize Garbiak beste lau bilduma atera zizkion koloretan: *Sagutxo bildur gabea*, *Harrigarrizko ibilaldia*, *Sagutxo jakintsua*, *Erbia eta apo armatua*, *Ikasbide on bat* eta *Mitxinen bihurkeriak*.

15



Mugerreko ume batek margotu marrazkia bere liburuan.



Gazte-literatura ihardunaldietako gomita-txartela Gorlizeko Leire txikiak margotua.



Azkenik 1978an, *Xuri eta Gorri eta Kikirrikiki*, Manuel Lekuonaren ipuin-bilduma ederra Iparraldeko euskarara egokitua, beti eskoletako haurrak gogoan.

1993an J&D Miarritzeko argitaletxean plazaratu zuen M.H. Martens-ek frantsesez idatzi ipuin baten itzulpena: *Peio ttipiaren abenturak*. Frantsesezkoa baino hobeki saldu zen.

Elkarrek atera dio azken bilduma bat 1998 urtearen hondarrean: *Ipuin azau bat*. Hogeita bat ipuin ditu Paxkal Bourgoin senperetarren marrazkiek alegeraturik.

Jakina dugunaz Ikas-ek beste hiru plazaratuko dizkio eskoletan lantzeko moldean prestaturik.

Gaur egun ipuin idazten segitzen du gure bankarrak. Gaztetan idatziak irakurtzen dituelarik ohartzen da ez direla lehen mailakoak, huts anitz badutela. Etxean ikasi euskaraz idazten zuen, bere euskara lantzeko xantzarik behin ere ez izanik.

Aholku eske ibili zen eskuin ezker bere euskara hobetu nahiz. Azkenean Parisera igorri zuen antzerki-bilduma bat Euskal Etxeak —Ibarrondo, aita Xabaño, Leizaola eta bestek— antolatu lehiaketa batera eta handik

izan zituen lehen laguntzak. Testua bi orrialdetan itzuli zioten; alde batetik, eginak zituen hutsak, bestetik, zuzenketak. Gero ipuin batzuk igorri zizkien eta gauza bera egin zuten. Gain gaineratik preziatu zuen hori. Leizaola lehendakariaren gutun bat baitzen delako oharrekin, ongixko gordetzen du geroztik.

Gure Herria aldizkarian agertu ziren ipuinak irakurtzen dituelarik orai, frantsesez pentsatuak zirela ohartzen da. Lehenagoko horien zuzentzera saiatzen da orai, besteak beste. Zetabean pasatu eta berriz agertzeko xedea luke.



HAIZE GARBIA


Apezen mundu horretarik hurbil bizi eta Manuel Mitxelena 1936an Iparraldera ihesi etorri gipuzkoar apeza etorri zitzaion bila, harekin lan egiteko *Haize Garbia*-n —1968an Hendaian sortu talde baten izena zen gaitzeko lana egin zuen Haize Garbia elkarteak—. Izen bereko aldizkaria bazen lehenik eta Marijaneren ipuinak ongi etorriak ziren hor. Ipuin batetarik nola egin euskarazko eskola bat azaltzen zuen zenbaki bakoitzean.

Baina beste lanik ere egin du Mitxelena apezarekin. Lehenik bi hiztegi: euskara-frantses eta frantses-euskara. Tournier eta Lafittek frantsesetik euskara egin zutena aspaldi agortua eta hau izan da luzaz Iparraldeko euskaltzaleek eskutan zeukaten tresna bakarra. Hainbesteradino saldu da non zazpi edizio izan baititu eta 37.000 ale saldu baitira.

17



Haize Garbia aldizkaria.




Haize Garbiarekin gramatika lodi bat ere atera zuten Mitxelena eta Lafitterekin eskuz esku, 1978tik 1983rat: 4 tomo ditu eta 1640 orrialde. “Ene biziko penetarik bat da. Hamar urte ari izan naiz lanean gramatika hori egiteko eta nehork ez du baliatzen” dio Marijanek.

3.000 aletan atera zen lehen tomoa baina bospasei ehun baizik ez zen saldu, ez baita hain gaizki Iparralde ttiki honentzat. Zer nahi gisara Minaberry anderea konsolatzeko ahal da! Euskararen ikasketek hats berri bat harturik azken urte hauetan, orai hasi da saltzen; Zabal liburu-dendan jakin dugunaz.

Alde batetik, garesti zen, eta bestalde, hemengo euskaltzaleetan guti ziren garai haietan neurri horretako gramatika batek beldur eman ez ziezaienak. Lafittek berak 2.000 orrialdetan betetzeko izanki eta 500etako “laburpen” bat baizik ez zuen inprimatu salduko ez zelako beldurrez. Gero erran zuen gramatika hori bere biziko bekatu handiena zela ez baitzen pedagogikoki egina. Haize Garbiarena biziki hurbiletik lagundu zuen pedagogia aldetik hobe zelakotz.

Diskoak ere atera ditu Marijanek Haize Garbiarekin. Lehenik, Euskal



Herriko Eguberri-kanten bilduma. Aspaldi gogoan zeukan lan hau. Mitxelenari aipatu eta berehala gauzatu zen proiektua. *Gaztelu Zahar* Hendaiaiko gizon-abesbatzak kantatu zituen Eguberriko hamar kantu ezagunenak: *Ator mutil* eta *Olentzero* ez bada, besteak eliza-kantuak dira. Diskoaren titulua, *Oi Bethleem*, duela bi mende pasa Salvat Mounho Isturiztar apezak egin zuen kantutik hartuta dago.

Ondotik jin zen *Anjelusak* Larresoroko eliz koruarekin. Lehenagoko meza nagusiak Anjelusaren kantuarekin bururutzen ziren eta ez zezaten beti tehenta bera izan, dozena-hamabost bat aire baziren. Horietarik hamar badira diskoan.

1981ean *Agur Maria* argitaratu zuten. Andre dona Mariaren hamalau kantu dira Urruñako eliz koruak emanik. Aiherrako herriak kantatu zituen *Dezagun kanta gogotik* diskoko hamairu eliza-kantuak. Kantu horiek denak gero eta gutiago entzuten ziren elizetan. Galduko zirela beldurrez nahi izan zituen diskoan grabatu.

Gorago erran dugu *Basque Eclair* egunkarian agertu zela egunez egun Oñatibiaren metodoa, Iparraldeko euskarara egokitua eta frantsesa

zekitenentzat egina. Proiektu honetarako ideia Haize Garbiatik heldu zen eta Hendaiaiko ikasle helduentzat hasi ziren egokitzapena egiten. Lehen liburua 1969 urtean atera zen. 3.000 aletako lehen edizioa hiru hilabetez saldu zen —erosle anitz turistak zirelarik, egia erran—. Zazpi edizio izan ditu orotara eta 18.000 ale saldu dira dagoeneko. Bigarren liburuari gagozkiola, bi edizio izan ditu eta 4.000 ale saldu dira.


Magnetofonoak etxean sartzen hasiak baitziren, bost kasetetan grabatu zituzten ikasgaiak, edizio berri bakoitzean kaset berriak egiten zirela. AEKko gau-eskolek ere baliatu zituzten.



Eliza-kantuz osatutako lau diskoak.



Ikusentzunezkoekin bururatzeko, Bourrelier argitaletxeak atera zituen lanki handi batzuk, dena marrazki, eta horiekin testu bat frantses-hiztegia lantzeko. Testu horiek euskarara itzuli zituen diapositibak eta laukiak hiztegia aberasteko baliagarri izan zitezen, gainera, metodo horren testua ere kasetean grabatu zuen.



Oñatibia metodoaren liburuak eta kasetak.

Antzerkiak ere idatzi ditu, beti haurrentzat. 1982an Toribio Alzaga, Euskaltzaindiak eta Bizkaiko Aurrezki Kutxak eskaini literatur saria irabazi zuen sei antzerki laburrekin *Haur Antzerki* titulupean. Ipuinekin ere irabazi ditu sariak baina batez baizik ez da gogoratzen: Euskaltzaleen Biltzarrak eman zion lehenengo saria lehiaketarako gai hau emanik: “berebil zaharrari adio erraten diozu”.

Gure liburutegia miatuz aurkitu dugu 1984an Santurtziko Udalak antolatu hirugarren antzerki labur lehiaketako irabazleen bilduma. Lehen sariaren irabazleetan dago gure bankarra *Eñaut eta Sagutxo* eta *Nor da asttoko* antzerkiekin.

Hona zer dioen berak *Haur antzerki* bildumaren antzin solasean: “Abere ainitz bada antzerki horietan. Haurrek maite dituzte abereak. Bainan ere, abere itxurarekin, gehiagok parte hartzen ahal dute antzerki batean. Guretzat munta handia du ainitz haur antzerkilari izan dadien”.

“Nahitarat antzerki hok laburrak dira. Ez da sobera galdegin behar haur bati. Arpegietan margoak eta gorputzari eratxikitzen diren arropa

bereziak soinean, biziki gauza politak egiten ahal dira.”

Armendaritzeko haurrek eman dituzte antzerki horietarik zenbait 1995ean.

1993an Gero argitaletxeak publikatu dio hamar antzerki labur dauzkan bilduma, euskara batuan eta *Ortzadar* bilduman: *Antzerkia ikasetxean*. Horretaz ari garela, batuaren beharra erakusten duen anekdota bat azalduko dugu: “oñoñak” hitza agertzen baita bilduma horretan, Hegoaldekoek uste izan dute tipulak zirela: “goxokiak” erran nahi du hitz horrek Iparraldean.

Liburu horren azalean ikusten da haur bat aurpegia margotuta: Maite Barnetxek telebistarentzat grabatu baitzituen Arbonako haurrak antzerki ematen, orduko argazkia da.



22



Maite Gonzalez eta Itxaro Bordarekin.

Beste sail batean ere ari izan da gure Marijane duela dozena erdi bat urte: komikietan. Baditu zenbait idatziak eta marrazkiak emazte gazte batek egin zizkion baina batere ez zaizkio gustatzen. Emazte hori ez da euskal mundukoa, euskaraz ez daki eta aldi oroz ipuina kontatu behar izaten zion frantsesez, zer egin behar zuen erranez. Ez daiteke molderik hoberena artista batentzat zer bait baliagarri egiteko.

Hala nola lamia bat egin zezan galdetu eta mutiko bat egin zion, mutiko ederra bai, baina ez lamia! Ez harek asmatu bezelako lamia bederen. Bankako erreketan behin ere ez zuen lamiarik ikusi bere haur-denboran. Nahiz baziren, zeren eta emazte zahar bat ezagutu du, maingua, eta honek Arc-eko Joana ikusi zuen bere zaldiaren gainean. Andre horri beste behin, gau batez etxera zihoalarik, lamia batek orrazia kendu zion biloetarik eta bota. Baina Marijanek ez du xantza bera izan lamiak ikusteko. Istorio hori kontatzen zigula, iduritu zaigu ez zuela berak gehiagoko sinesterik Lamien baitan. Euskaraz eta haurretan bai, ordea. Eta ikusten delarik zer nolako lanak egin dituen ixil-ixila, urtez urte nekatu gabe

ez da harritzekoa domina zenbait eman badizkiote ere Uztaritzeko bankarrari.

Euskaltzaindiak urgazle bezala hartu zuen 1980an eta 1997ko maiatzean ohorezko euskaltzain izendatu zuen.

1998ko urriaren 29an, Euskal Idazleen Elkarteak bere ohorezko lehendakari izendatu du Miramar jauregian, haur- eta gazte-literaturaren lehen biltzarraren karietara.



Euskaltzaleen Biltzarrak egin omenaldian Senperen.



Baina Marijaneri egin liezaiokeen ohorerik handiena da Euskal Herriko xoko guzietan, haurrak milaka aritzea kantuz bere olerkiekin, beste batzuk aldiz loriatuak bere ipuinen irakurtzen edo idatzi dituen antzerkien ematen, lagunak begiak zurituak, ahoa zabalik begira daudela, xoratuak, katu, urtxintxa, lapin eta ahauñez egin ametsetako mundu hartan...



1998ko urriaren 29an Euskal Idazleen Elkarteak egindako omenaldia Haur eta Gazte Literatura I. jardunaldietan ohorezko lehendakari izendatuz. Enkarni Genuak —*Txotxongilo*-koa— eman zion izendapenaren agiria. Hizketan ari dela mahaian ikus daitezke Ramon Etxezarreta, Andolin Eguskitza eta Maite Gonzalez.